

## Larresoron, 2004.eko ekainaren 25ean

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,  
Henrike Knörr, euskaltzainburuordea,  
Xabier Kintana, idazkaria,  
Beñat Oihartzabal, Iker sailburua,  
Andres Urrutia, Jagon sailburua,  
Jean Louis Davant,  
Patxi Goenaga,  
Andres Iñigo,  
Emile Larre,  
Jose Luis Lizundia,  
Txomin Peillen,  
Pello Salaburu  
eta Piarres Xarriton euskaltzainak,

Juan Jose Zearreta, kudeatzailea, Pello Telleria, idazkariordea, eta Mikel Gorrotxategi Onomastika batzordeko idazkaria, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Patxi Altuna, ahala P. Salabururi; Jose Antonio Arana Martija, ahala H. Knörr; Miren Azkarate, ahala P. Salabururi; Xabier Dihartze, ahala J.L. Davanti; Juan Mari Lekuona, ahala J. Haritschelharri; Patxi Ondarra, ahala A. Iñigori; Juan San Martin, ahala J.L. Lizundiari; I. Sarasola, ahala P. Salabururi; P. Zabaleta, ahala A. Iñigori; eta Antonio Zavala, ahala J.L. Lizundiari.

Batzarra goizeko 10,10ean hasi da Larresoroko Herriko Etxearen bilera aretoan, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

### 1. Akta onartzea

Maiatzeko batzarraren akta onartu da, horri J.L. Davanten ezin etorria erantsirik, berau E. Larreren bitartez adierazia baitzen.

### 2. Hizkuntza gaiak

**2.1.1. Onomastika: Gipuzkoako herri izendegia (2. zerrenda):** Tolosaldea, aurreko bileran banatua, aurka inolako oharrik jaso gabe, ontzat eman da. M. Gorrotxategik azaldu duenez, J.L. Lizundiak *Toloserria* forma ere jaso du, eta hori ere jasotzea erabaki da. P. Goenagak *-(h)erri* bukaera duten toponimoek izan behar duten deklinabide-trataeraz galdera egin du. M. Gorrotxategik, J.L. Lizundiak, Tx. Peillenek, P. Goenagak holako izenak alde batera eta bestera erabakitzearen alde on-txarrez hitz egin dute. Haritschelharrek *-(h)erri* bukaeradunak hurrengorako aztertu eta erabakitzea proposatu du. Ontzat eman da. *Amasa* herri-izena erantsita, *amasar* herritar-izena ere ontzat eman da.

**2.1.2. Batzordeak Gipuzkoako herri izendegia (3. zerrenda):** Goierrri aurkeztu du. Horri buruzko oharra zutailaren 15erako bidali behar direla gogoratu zaie euskaltzainei.

**2.2.1. Batzordeak Euskal Herria** izena arau izateko proposamena aurkeztu du A. Iñigok. Ondoren, *Euskal Herria* izena deklinatzeko moduaz eta herri-izen hori inguruko erdaretan adierazteko Euskaltzaindiak erabiliko dituen itzulpenez mintzatu dira P. Goenaga, H. Knörr, A. Iñigo, B. Oihartzabal A. Urrutia, Tx. Peillen, P. Xarriton eta

X. Kintana, nork bere ñabardurak eginez. Hurrengo bilkurarako, uztailaren 15erako, oharrak idatziz bidaltzea erabaki da.

**2.2.2. Hiztegi Batua:** P. Salaburuk *b – berriz* zerrendari egin zaizkion oharrak aurkeztu ditu, eta horiek aztertu eta eztabaidatu ondoren, *balazo*-tik *baliogo*-rainoko hitz guztiak erabaki dira. P. Salaburuk zerrenda bat aurkeztu du, euskaltzainek markaturiko hitzekin, baina gero oharrak egin gabeak.

### 3. Eskuartekoak

J. Haritschelharrek ondoko gaiak aurkeztu ditu:

Aramaion, uztailaren 6tik 9ra artean, Euskal Herria XVI. mendean gaiak eginen diren kultur jardunaldien programa.

Pirinio Atlantikoetan gehien erabiltzen diren deituren zerrenda, maiztasunaren araberaren ordenatua.

Era berean, Euskaltzainburuak J.L. Lizundiaren sarrera-hitzaldia, Euskaltzaindiaren uztailako batzarraren ondoren, Abadiñon izango dela adierazi du. J.L. Lizundiak hara heltzeko bide eta garraioak argitasunak eman ditu.

### 4. Andolin Eguzkitza euskaltzainaren ordezkia hautatzea

Andolin Eguzkitza euskaltzain zenduaren hutsunea betetzeko aurkeztu diren bi kandidatuetatik bat hautatzeko, botazioa egin da, ondoko emaitza hauekin: Adolfo Arejita jaunak 12 boto, Itziar Laka andreak 10 boto eta boto zuri bat. Beraz, Adolfo Arejita jauna gelditu da hautaturik. Berari halaxe jakinaraziko zaio.

### 5. Banaturiko liburuak:

Espainiako Kode Zibila, Andres Urrutia Badiola euskaltzainaren eta Esther Urrutia Idoiaga irakaslearen ardurapean itzulua.

Nafarroako Gobernuak, '*Fonoteca del vascuence*', barruan Nafarroako euskara-*ren egoera* izenaz ateratako emaitzak.

Euskaltzaindiak BBK-ren diru-laguntzaz 2003an antolatutako Literatur Lehiaketako liburu sarituak:

**Olerkia:** *Oihan nabarra*, Luis Garde Iriarte-rena.

**Antzerkia:** *Lagun mina*, Aitor Arana-rena.

**Eleberria:** *Bost ahizpa*, Aitor Arana-rena.

**Saioa:** *Harrizko pareta erdiurratuak*, Patziku Perurena-rena.

Bilera-ekitaldia 12,44an amaitu da.

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria